EUSKERAREN IZKERA GATIK

Euskera apaintzen ari da asko
šamurtzen ere gogotikan
iñun ez det nik esagututzen
izkuntza ederragorikan;
danak artuba daukagu garbi
amaren bularretikan,
au esaten det Euskal erriyan
euskaldun danen gatikan,
ez derizkiyot mintzatzen danik
onekin izkuntz charrikan.

Euskaldun onak bear diyogu
eldu, geran bitartean
zergatik zabalduba daguen
ondo mundu zabalean,
chit asko mintza egiten dute
Ameriketa aldean
an ere nozki ez da galduko
zañez ona dan artean
antziñetako izkuntza baita
sartzen dana biyotzean.

Ain egoten naiz ezin sumatuz
datorkigun minairi
iduritzen zait alde batera
oroitutzen naizela ni
eta frankotan entzun diyotet
ni baño zarraguai;
zuben azpiyan badira asko
errabiz daudenak guri
eta andikan etorriko da
errabiyazko gaitz ori.

Loratu zagun gure izkuntza
aldegun eta goraño
gauza oberik ez da egingo
nere iritziz eundaño;
mundu onetan izkuntz ederrak
guztiz asko dira, baño,
nai izaten zayotenak
beti beti zañeraño,
¡Euskaldunentzat ez da sortuko
ederragorik au baño!

JOSÉ ZAPIRAIN TA IRASTORZA